


> Buletina

2020-21 ikasturtea

Heziketa berezia martxan



Pedagogia feminista, lanketa poliedrikoa eskola eremuan

Pedagogia feministaren bitartez, hezkuntza, eraldaketarako tresna bilakatu nahi dugu. Desberdintasunak azaleratu eta berauez jabetzen lagunduko duen hezkuntza prozesuak eraikitzeari buruz ari gara.

Normalizazio mekanismoak hautsiko dituen hezkuntza ikuspegi eta praktika multzoaz, aldaketarako ekintzak sortu eta eraikiko dituen.

Uztailaren 1ean Eibarren, Udako Ikastaroak elkarrekin jardunaldi irekiak egin genituen. Helburuak hauek izanik:

- > Hezkuntza eremuan sexu-genero eraikuntza eta heteroaraua nola eraikitzen diren aztertzea.
- > Sexu-genero eraikuntza eta heteroaraua deseraikitze-ko begirada integrala lantzea.
- > Pedagogia Feministaren bidean alternatiboak diren zenbait esperientziren aurkezpena



Ast-Osteg: 9:00-14:00/15:00-18:00
Ostr: 9:00-14:00



www.lab.eus

Twitter: @labheziberezia
Facebook: Lab Heziketa Berezia

ARABA

Fermin Lasuen 13, Behea
01001 Gasteiz
Tlf 648735679
666772025
heziketabereiaaraba@lab.

BIZKAIA

Rekalde Zumarkalea 62, Behea
48010 Bilbo
Tlf 666778152
heziketaberezia@lab.eus
heziketabereziabizkaia@lab.eus

GIPUZKOA

San Bladi 1, Behea
20013 Donostia
Tlf 666775703
heziketabereziagipuzkoa@lab.eus

Edozein zalantza, iradokizun, arazoa,... izanez gero, LAB Sindikatura deitu, konfiantza osoarekin eta berehala konpontzen saiatuko gara. Kontsulta presentziala izatea nahi izatekotan deitu hitz ordua adosteko.

> Segregaziotik inklusiora



Jatorria, arreta eta egoera sozioekonomiko edo klasearen arabera ikasleak segregatzea arrazista eta klasista dela deritzogu. Hezkuntzak ezin dezake bera bakarrik, segregazioa gainditu, baina zer egiten ari gara? Zer egin dezakegu?

Martxoaren 27an Gasteizko Europa Jauregian jardunaldi irekiak egin genituen. Bertan, hainbat herri eta ikastetxetan segregazioa gainditzeko egiten duten lana ezagutu genuen. Euskal Herriko Unibertsitateetako irakasleek herri zapaldu gisa segregazioa aztertu eta gainditzeko hausnarketak plazaratu zituzten.


Catalunyako errealitatea eta bertan aplikatzen den Harrera Protokoloaren berri izan genuen; eta, noski, segregazioa pairatzen duten kolektibo eta pertsonen bizipen zein hausnarketak ere ezagutu genituen. Azkenik, hilabete luzeetan LABek landu duen proposamena ere aurkeztu genuen, oraindik lantzen ari garen dokumentu irekia izan arren.

> Lan osasuna

Heziketa Bereziak ibilbide luzea dauka irakaskuntzan, 1985. urtean behar bereziak zituzten ikasleak eskola arruntetan eskolatu ziren eta, ondorioz, langileak Hezkuntzan integratuak izan ginen. Izan ere, 36 urte daramatzagu hezkuntzan lanean aniztasunari erantzuna ematen. Hasiera batean, heziketa bereziko auxiliarrak laguntzaileak? ginen, baina aldarrikapen eta borroka askoren ostean gure lan hezitzailea aitortua izan zen eta Hezkuntza Laguntzako Espezialistak izatera pasatu ginen.


1995. urtean Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea onartu zen, eta 2004ko gure Lan Hitzarmenean jasota dagoen moduan, 59. artikuluan, lege hura garatuko zen gure kolektiboari egokituta. ADITZA FALTA DA, EZTA?

Azkeneko bi kurtsoetan ondoeza edo mina izan duzu?



Ikastetxeko organigrama barruan gure lana aitortuta dagoela uste duzu?

65 erantzun




Urte hauetan guztietan lan osasuna eta laneko arriskuen prebentzioan ez da lan osasuna gaia garatu. Gure lan gaixotasunak ez daude aitortuta eta lan egokitzapenak egiterako orduan arazoak izaten ditugu.

2000/2001. urteetan Bizkaiko Hezkuntzako mediku zerbitzuak langileen arrisku muskulu eskeletikoen ebaluazioa egin zuen eta argi ikusi zen gure lanaren eraginez sortutako gaixotasun muskulu eskeletikoak zeintzuk diren, baita arrisku psikosozialen inguruko aipamena ere egiten da. 20 urte pasatu dira eta berdin jarraitzen dugu, ez dira neurririk hartu eta lan gaixotasunak kronifikatu dira.

Aurten, LABetik, osasun inkesta bat luzatu dugu gaur egungo egoera zein den jakiteko, eta bertan oso argi ikus dezakegu 2000. urtean deskribatu zituzten arazoak urte hauetan guztietan langileek helarazi dizkigutenak.


Adina:

70 erantzun



Zenbat urte daramazu lanean?

70 erantzun



HAU DENA IKUSITA GURE ALDARRIKAPENAK DIRA:

- > Kolektibo guztien lan arriskuen azterketa berria egitea faktore psikosozialak eta ergonomikoak eta genero-ikuspegia kontuan hartuko dituen.
- > Lanpostu guztien arriskuen ebaluazioa egitea eta urtero berrikustea.
- > Mediki azterketak Berritzeguneka egitea generoa, adina eta lanpostu bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuta.
- > Berriazko arrisku batzuen pean dauden taldeentzako urteko aldizkako azterketak. Talde horiek Prebentzioko Zerbitzuaren Mediki Arloak definituko ditu, Lantoki arteko Segurtasun eta Osasunerako Batzordeari jakinarazi ondoren. Eskatzen duten langile guztiei egingo zaie.
- > Mediki azterketa hiru urtetik behin egingo da, hitzarmenaren baitan diren langile guztiei egingo zaie, bere osasuna arriskuan izan ala ez.

- > Baja luze baten ondoren lanerako buelta progresiboa eta zaindua izango da.
- > Osasuna dela eta lanpostua egokitu/aldatzeko klausulak ezarriko dira. Gure titulazioak ahalbidetzen dituen administrazio publikoko lanpostuak aztertu: liburutegiko arduradun, jantokiko arduradun, idazkaritzetan, Berritzegunetan...
- > 60 urtetik gorakoei edo medikuak egiaztatuta osasun-arazo larriak dituztenei arreta zuzeneko orduak jaitsi.
- > Langileen formakuntza segurtasun eta osasun arloan; laneko arriskuen prebentziorako formazioa.
- > Gaixotasun profesionalen aitortza izan, arazo muskulu-eskeletikoak baita psikosozialak ere. Lan gaixotasun gisa kontuan izatea eskoletan hartzen diren gaixotasunak: konjuntibitisa, gastroenteritisa...
- > Haurdunaldi prestazioa ofizioz.

> Elkarrizketa



Aspaldian Okupazio Terapia geroz eta gehiago entzuten ari gara hezkuntza komunitate barruan. Hala ere, beti sortu zaigu zalantza zer ote den Okupazio Terapeuta bat, eta hezkuntzan zer egin dezakeen. Hortarako beraiekin harremanetan jarri gara eta galdera batzuk egin dizkiegu gure zalantzei argitasun pixkat emateko helburuarekin.

Zer da Okupazio Terapia edo Terapia Okupazionala?

Okupazio Terapia okupazioaren bidez osasuna eta ongizatea sustatzeaz arduratzen den lanbidea da.

Okupazio terapeutak eguneroko ohiko jarduerak burutu ahal izateko pertsonaren gaitasunak aztertzen ditu, bere ingurunea eta ekintza konkretua, eta interbentzioa egiten du gaitasun hori kaltetua edo arriskuan dagoenean, edozein dela ere bere arrazoia. Zeintzuk diren ohiko jarduera horiek? Hauraren kasuan janztea, elikatzea, komuna erabiltzea, jolasa, eskolako tresnak erabil-

tzea (arkatzak, guraizeak, ordenagailua...), gelakideekin batera. Okupazio terapeutak ekintza helburuarekin erabiltzen du, eta ingurunearen egokitzapen egokia zein den adierazten du, haurrak ahalik eta konpetentzia gehien izateko eta autonomia gehien garatzeko.

Honek zer suposatzen du? Okupazio terapeuton lana ez da ikaslearengan eta bere gaitasunetan oinarritzen soilik, batzuetan ekintzak egiteko era aldatzea proposatu dezakegu, baita materialak erabiltzeko modua edo pausuak egokitzea, inguru fisikoan moldaketak egitea, etab.

Zein izan da zuen ogibidearen garapena urte hauetan guztietan EAEko Hezkuntza Departamentuan?

Hezkuntza departamentuan lehen Okupazio terapeuta 1996. urtean hasi zen lanean. Foru Aldundiko ezgaitasun motorikoen zentru espezifiko batetik zetorren eta Hezkuntza Sailak bere gain hartzeko apustua egin zuen. Ordutik gaur egunera Okupazio terapeuton garapena nabarmena izan da. Egun 16 Okupazio terapeuta daude lanean EAEko Hezkuntza Departamentuan.

Askotan eskoletan hainbat materialerekin ikusten zaituztegu. Material hauekin egiten duzue lan?

Material hauek edo Laguntza Produktuak gure lanaren zati bat dira. Terapeutok Laguntza produktuak baloratu, hautatu eta hauen erabilerarako beharrezko aholkularitza eta trebatze lanak burutzen ditugu ikasle zein beste profesionalekin.

Baina gure lana ez da material hornikuntzara mugatzen. OT-ok ikaslearen trebetasun funtzionalak eta zereginaren eta inguruneke ezaugarriak baloratzen ditugu eta OT eskuhartze plana garatzen dugu ikaslearen parte-hartzea sustatzeko, curriculum edo/eta curriculum sarbidea errazteko.

Okupazio Terapeutak bere interbentzioan beti izaten ditu kontuan ikaslea, ingurunea eta ekintza eta, nola ez, hauen ezaugarriak.

Adibide batzuk gurekin partekatu ditzakezue zuen lana hobeto ulertzeko?

Lehen esan bezala, Okupazio Terapeutok ikaslearen gaitasun funtzionalak eta ekintzaren eta inguruneke ezaugarriak baloratzen ditugu eta OT eskuhartze plana garatzen dugu ikaslearen parte-hartzea sustatzeko, curriculum edo/eta curriculum sarbidea errazteko. Ekintza horiek aztertzen adituak gara, horretarako ikaslea ekintzak burutzen ikustea ezinbestekoa dugu; ez zaigu emaitza bakarrik interesatzen.

Lehen adibidea: **lehenengo mailara doan ikasle batek ez daki bakarrik jantzi eta eranztzen**. Kasu horretan, Okupazio Terapeutak egoera hau emateko arrazoiak zein den jakiteko azterketa egiten du arlo ezberdinetan, eta horren arabera, lanketa konkretu bat egin beharko du ikasle horrekin. Askotan Hezkuntzako Laguntza Espezialistari edo Irakasleari irakatsiko dio asteen zehar zer eta nola egin behar duen, ikasleak finkatutako helburua berea egin arte.

Bigarren adibidea: **ordenagailua ohiko moduan erabili ezin duen ikasle baten kasuan**, adibidez, agian lehenengo bere goi gorputz adarra lantzea ezinbestekoa izango du, bere gaitasunak garatu, eta hemendik abiatuz laguntza produktu bat behar duen ala ez erabaki eta honen lanketa egin.

Askotan ez dugu denborarik aurrez egin beharreko lanketak egiteko, ikasle asko ditugulako, eta konpentsazio-neurriak ezartzen dira zuzeneko lanketan azpimarra egin ordez. Horregatik lotzen duzue askotan gure lana laguntza produktuekin.

Idazketan zailtasunak dituzten ikasleekin geroz eta gehiago ikusten zaituztegu. Horrela da?

Bai, horrela da. Idazketak berebiziko garrantzia du ikaslearen eskolako eguneroko lana burutzean, eta irakaslearen ardura den arren idazketan irakastea, zailtasunak agertzen direnean (normalean abiadura edo/eta irakurgarritasunean eragiten dute, eta batzuetan mina eta nekea izaten dute) Okupazio Terapeuta da aditua.

Gure mugetatik haratago, urte asko dira Okupazio Terapeutak lan hau egiten dutela, eta beraiek diseinatu-tako programa zehatzak eskoletan ikasle guztiei ezarri ere egin zaizkie lurralde batzuetan.

Azaldu dezakezue adibideekin nola egiten duzuen lanketa hori?

Eskuhartze bakoitza ezberdina izan ohi da, ikasle bakoitzak idazketa funtzionalerako kaltetuak dituen arloen araberrakoa. Gure eskuhartze barruan, mota ezberdinak daude, ahala nola: kontrol posturala, indarra eta erresistentzia hobetzeko lanketa egin dezakegu. Arkatzaren erabilerrakoa gaitasun manipulatioa aztertu eta lantzen dugu. Ikusmen eta pertzeptzio gaitasunak aztertzen eta lantzen ditugu. Integrazio ikusmen-motorea hobetzen laguntzen dugu. Hizkien osatzean zailtasunak agertzen direnean, berriz, estrategiarik egokiena aukeratzen saiatzen gara eta programa baten bidez honen lanketa egiten da...





Kasu askotan zentzumenen modulazio edo diskriminazio zailtasunetan eskuhartzea egiten dugu. Beste kasu batzuetan, aldiz, alerta maila mantentzeko edo hobetzeko lanketa egiten dugu.

Ikusten duzun moduan, oso gai konplexua da idazketa-rena.

Eskoletako langileekin lan egiten duzue?

Bai, hartueman estua dugu eskoletako profesionalekin, irakasle-taldearekin eta, batez ere, erdigunean kokatzen den tutorearekin. Kasu askotan Laguntza Espezialistekin lankidetzan ari gara. Eta ikaslearen hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten gainerako profesionalei zein familiei aholkuak ematen dizkiegu Okupazio Terapiako eskuhartzearekin zerikusia duten arloetan.

Guretzat garrantzitsua da Osakidetza zein kanpoko beste zerbitzuetako espezialistekin lankidetzan estuan aritzea, helburuak denon artean finkatzeko eta ikaslearen inguruan lana elkarrekin egiteko.

Zein ikasle motari arreta eskaintzen diozue?

Okupazio Terapeutok Hezkuntza Premia Bereziak (HPBak) dituzten ikasleei arreta eskaintzen diegu, ikasleak bere eskola-jarduneko arloetan, edo/eta eskola-eremu ezberdinetan (ikasgelan, komunean, jantokian, patioan...) zailtasunak dituenean. Batzuetan berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleekin ere ari gara. HPB aholkulariak erabakitzen du zein ikaslerekin eskatu okupazio terapia zerbitzua.

Okupazio Terapeutok, ikasleek ondorengo eskola-jardun arloetan zailtasunak dituenean eskuhartzen dugu:

Esku-funtzioa eta eskolako ohiko tresnen erabilera: disgrafia, pintza desgokia, idaketa abiadura motela, tresnak erabiltzeko zailtasunak

Eguneroko ohiko jarduerak (oinarrizkoak eta instrumentalak): arropa jantzi/erantzi, komunaren erabilera, jatean, desplazamentu funtzionalean, diruaren erabileran...

IKTetara sarbidea, komunikazioarako sarbidea (EMI/ALEekin lankidetzan komunikazio sistemaren sarbidean arazoak daudenean), **ergonomia eta postura kontrola, parte-hartze soziala, jolasa, ingurunearen egokitzapena, curriculumaren egokitzapena.**

Zertan datza ikasleei eskaintzen diozuen arreta hori? Nola laguntzen diozue ikasleari?

Zailtasunak dituen ekintza horren konponenteak (sentsorialak, motorikoak, kognitiboak...) zuzenean ikaslearekin landuz. Ekintza egokituz ikaslea gai izan dadin beste modu batetara ekintza hori egiteko. Ekintza gauzatzeko materiala edo Laguntza Produkturen bat ikasleari edo ikastetxeari maileguan emanaz eta ikaslea material horren erabilpenean trebatuz.

Esan duzue HPB aholkulariak erabakitzen duela zuei laguntza eskatzea. Nola da prozesu hori? Nork bideratzen dizkizue kasuak?

> Elkarrizketa

Normalean zailtasunak detektatzen lehena irakaslea izan ohi da. Irakaslea eskolako Kontsultore/Orientatzaileekin harremanetan jartzen da eta azken honek laguntza behar badu, Berritzeguneko HPB aholkulariari eskaera luzatzen dio. HPB aholkulariari dagokio, beharra dagoenean, Okupazio Terapeutaren balorazioa eta beharrezkoa balitz, eskuhartzea eskatzea.

Zein zailtasunek eragin diezaioke ikasle bati eskolako bere eguneroko jardueran eta curriculumaren jarraipenean?

Asko eta ezberdinak izan daitezke: koordinazio-zailtasunak, planifikatzeko zailtasunak, arreta mantentzeak, mugikortasunerako zailtasunak, eskolako gailuak

erabiltzeko zailtasunak, arbeletik orrira edo kuadernora kopiatzekoak, etengabe mugimenduan egon beharrak, irakaslearen azalpenak jarraitzeko zailtasunak, konzentrazio zailtasunak, idazteko zailtasunak, irakurtzeko edo/eta irakurritakoaren ulermenean dituzten zailtasunak... Aukera zabala eta anitza da OT-on lan esparruan sartzen dena: zentzumen-sistemetan oinarritutako zailtasunak, mugimenduari lotutako zailtasunak eta, batez ere, enborra eta beso-eskuen mugimenduei lotuak, planifikazioa, koordinazioa, inhibizio falta, eskolako gailu arruntak (kuadernoak, erregelak, arkatzak...) modu eraginkorrean erabili ezin izatea, eta abar handi bat.

> ENPLEGU PUBLIKOA SORTU ETA EGONKORTU

EAEko administrazio publikoetan egoera jasanezina da. Egiturazko lanpostuetan behin-behinekotasun tasak %40 ingurukoak dira administrazio gehienetan, eta milaka langile egoera ezegonkorrean mantentzen dira urte luzez.

Gainera, pribatizazioen dinamikak aurrera jarraitzen du, zerbitzu publikoen bidez negoziazioa sustatzen delarik. Zerbitzu publikoak indartu eta kalitatea hobetu baino, ikuspegi merkantilista geroz eta hedatuago dago; lan-zama altuak, eskubideen murrizketak edota kidegoa gatzetzeko zailtasunak egoeraren adierazleak ere badira.

Bizi dugun salbuespen egoera honetan erabakiak hartu behar direla defendatzen ari gara eremu guztietan.

- > Kontsolidazio Lege propio bat behar dugu, behin-behineko kontratazioaren abusua sufritzen duten langile guztien egoera egonkortzeko.
- > Lanpostuen zerrendetan agertzen ez diren lanpostuak egiturazkoak bihurtu behar dira

Mobilizazio ugari egin ditugu sektore ezberdinetan: Osakidetza, Hezkuntza Saila eta Haurreskolak Partzuergoa, Eusko Jaurlaritzako administrazio orokorra eta atxikitutako erakundeak (Lanbide, Osalan,...), Justizia, Enpresa Publikoak- autonomikoak, Udal eta Foru erakundeak

ENPLEGUA PUBLIKOAREN DEFENTSAN, HEZIKETA BEREZIA

Egonkortasun prozesuaren defentsan, gure interinitate tasa %60a baino altuagoa da.

2007tik oposaketa deialdirik ez da egin.

RPTaren eguneratze faltsuak. Aldi baterako lanpostu asko, iruzurreko lanpostuak dira.



> **Administrazioarekin negoziatzen**

Ikasturte honetan zehar bi gai potolo izan ditugu administrazioaren mahai gainean:
Lan Hitzarmena eta LEP prozesua

Ikasturtea hasi zenetik hutsunez eta iluntasunez inguratutik zeuden bi gai hauek argitzen saiatu gara. Lan handia zegoen egiteko eta LABeko kide guztiak eskuak lokatzetan sartzeko prest geunden.

Administrazioaren asmoa ekainean Lan Hitzarmen berria sinatzea bazen ere, hasieratik ikusi genuen aurtengo ikasturtean hori gauzatzea ezinezkoa izango zela. **17 urte daramatzagu lan hitzarmen berberarekin** eta, eguneraketa duin baterako, puntu asko landu eta eztabaidatu beharko genituela aurreikusten genuen. Beraz, **datorren ikasturte osoa hitzarmen berriaren lanketan jarraituko dugula argi dugu.**

Administrazioak mahai gainera ekarri dituen proposamenak aintzat hartzekoak izan dira. Lanaldiaren inguruan proposatzen dituzten aldaketek kezka sortzen badigute ere gure kolektiboaren etorkizunerako bidea egiten lagundu dezaketela uste dugu. Argi adierazi dugu hasieratik lan-orduak murriztu behar zaizkigula, eskoletako gainontzeko langileekin koordinatzeko denbora gehiago behar dugu eta eskoletako bizitzaren partaide izateko baldintzak jarri behar direla. Bide horretan administrazioak urrats batzuk eman dituen arren, ez du jarrera argirik erakutsi eta oraindik ere negoziaketetan jarraitu beharraren garrantzia ikusten dugu.

Ikasleen heziketan parte hartzen dugun guztiok gara garrantzitsuak eta bigarren mailako izaerak planteatzen dituen hitzarmenik ez dugu onartuko.

LEParen gaia ikasturte amaiera honetan ukitu dugu. LABeko liberatuok honen beharra ikusten genuen eta horrelaxe komunikatu genion EAEko Hezkuntza Sailari.

260 plazen eskaintza 2019an egin zen eta **deialdia** egiteko 3 urteko epemuga dagoenez, **2022ko abendua baino lehenago** egin behar da.

Jakin nahi genuen administrazioak honen aurrean zeukan jarrera. 260 plazen eskaintzarekin behin-behinekotasun tasa maila onargarrietatik oso urrun geratuko denez, deialdia atera bitartean lanpostuen zerrendetan egingo diren eguneraketak LEP deialdian sartuko dituzten ala ez jakin nahi genuen.

Deialdian lanpostu batzuk gehiago sartuko dituztela diote, baina oraingoz ez dute zenbaki zehatzik eman ezta eskaintza zabaltzeko zein irizpide erabiliko duten ere.

LABen argi dugu plaza huts guztiak eskaini behar direla, baita jardun osoko COS denak ere. Lanpostu hauek guztiak lanpostu estrukturalak direlako.

Administrazioak lan-kontratupeko langileak kontsolidatzeko legedi aproposa dauka: oposaketa faserik gabe merezimenduen bitartezko lehiaketa soilik egin dezakete, baina argiki adierazi zuen hau ez dutela egingo.

Administrazioak LEP librearen agertokia planteatzen digu. **Proposamen hau ez da behin betikoa.** Planteamendua idatziz ez daukagu eta ez dugu inolako ziurtasunik horrela izango denik. Eredu honetan **oposizio faseak %60a** balioko luke eta **lehiaketa fasea %40a**. Hala ere, proportzio hauek bermatzeko EAEko Kidego eta Eskalen Legeko Xedapen Gehigarria onartu egin behar da eta gaur gaurkoz ez dago onartua.

Galdera bilduma bat prestatuko lukete 1000 galderekin.

Oinarrizko gaiak prestatuko dira kategoria guztientzako eta gai espezifikoak kategoria bakoitzeko. Azterketak 1000 galdera horietatik aterako lirateke.

Hezkuntza Laguntzako Espezialistentzat bi ataleko froga bakarra planteatzen dute: alde teorikoa eta alde praktikoa. Biak test moduko azterketak lirateke.

Zeinu Hizkuntzako interpretatzaileentzat bi froga: alde teorikorako test moduko azterketa eta alde praktikoa bat epai-mahaiaren aurrean.

Transkribatzaileentzako bi froga: Alde teorikoa test modukoa eta froga praktikoa epai-mahaiaren aurrean.

Fisioak eta OT-entzako bi froga: test moduko azterketa teorikoa eta kasu praktikoa baten inguruko test moduko azterketa.

Kasu honetan **administrazioan egindako lanak %20a** puntuatuko luke eta beste administrazio eta eskoletan emandako esperientziak, %10a.

iruten



Inklusibitate erantz